

TALDE POPULARRAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALAREKIKO ZERO TOLERANTZIAREN MUNDU MAILAKO EGUNA DELA ETA

Iciar Aguilera de Juan andreak, Talde Popularreko zinegotziak, Udaltzaren Organoetako Araudiaren 104. artikulua babesean, honako Erakunde Adierazpen hau aurkeztu du Udaltzak eztabaidatu dezan, emakumeen mutilazio genitalarekiko zero tolerantziaren mundu mailako eguna dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Emakumeen mutilazio genitala ia gehienetan adin txikioei egiten zaie, eta nesken eskubideen urraketa bat da; jardun bereziki kaltegarria da, eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren adierazpen bereziki ankerra, emakumezkoak izateagatik, besterik gabe. Mutilazioa ekintza kriminal bat da, emakumeei eragozten diena beren oinarrizko eskubideez gozaten, eta ondorio fisiko eta psikologiko larriak sortzen dituena, bai epe laburrean bai epe luzean. Kultur tradizioekiko errespetuak muga gaindiezintzat izan behar du giza eskubideen errespetua; beraz, honelako praktikek ezin dute, ezein kasutan, arrazoi horiek direla-eta, inolako babes edo legitimaziorik izan.

Gai honi dagokionez, "emakumeen kontrako indarkeriaren beste modu batzuk ageriko egitea" izeneko ardatz zehatz bat landu beharra dago, kontuan hartuz, genero indarkeriarekin batera, emakumeek bikotekide edo bikotekide ohien eskuetan sufritutako tratu txarrez gainera, garrantzitsua dela ere emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuei aurre egitea, pixkana-pixkana, haiek ageriko bihurtzeko eta ezagutzeko, eta horrela, haien aurka modu eraginkorrean jokatzeko.

Horregatik, erakundeetatik, lanean jarraitu behar dugu erakunde espezializatuekin batera, gizarteari ezagutzera emateko emakumeen mutilazio genitalaren larritasuna, eta profesionalak, beren eginkizunen barruan, diziplina arteko ikuspegi batetik, haren prebentzio, detekzio eta tratamenduan eragiteko. Era berean, prestakuntza espezializatuan lanean jarraitu behar dugu, erantzun profesionala hobetze aldera, eta haren eskura jarri lana erraztuko duten tresnak, besteak beste, osasun jardunerako Protokolo bateratu bat emakumeen mutilazio genitalarekin lotuta, gaur egun Autonomia Erkidegoko eta osasun arloko erakundeekin lankidetzan lantzen ari direna.

Espainiako Gobernuak aktiboki lan egiten du Europako Batasuneko erakundeekin arauzko tresnak onartzeko eta Emakumeen Mutilazio Genitalaren aurkako borrokan ekintzak garatzeko, nazio eta nazioarte mailan, emakume eta neska guztiek, jatorria, arraza, erlijioa edo zeinahi inguruabar pertsonal eta

sozialetik harago, beren duintasunaz eta haiei datxezkien eskubidez guztiz goza dezaten.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularrak honako Erakunde Adierazpen hau aurkeztu du:

LEHENA: Donostiako Udalak emakumeen mutilazio genitala errotik desagerrarazteko konpromisoa adierazten du, eta praktika honi aurrea hartzearen eta desagertzearen alde egiten du, nozitzen dutenen eskubideak larri bortxatzeaz gainera, ia gehienetan adin txikikoak, ondorio emozional larriak eragiten baititu.

BIGARRENA: Donostiako Udalak eta gizarte osoak emakumeen mutilazio genitalari dagokionez duen arbuioa adierazten du, eta hura errotik desagerrarazteko konpromiso irmoa adierazten du; ondorioz, horretarako beharrezkoak diren neurri guztiak bultzatuko ditu.

Donostian, 2014ko otsailaren 7an.

Iciar Aguilera de Juan,
Talde Popularreko zinegotzia.